

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

**GAIA.- GERENTE ANDREAREN EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ XEDATZEN BAITA BIRJINETXE LAGUNTZA-ZENTROKO GAINBEGIRALEA DEN CUESTA LAPIDO JAUNA KENTZEA COVID-AREN INGURUKO AHOHKULARITZA-LANA EGITETIK LAGUNTZA-SAREAREN EREMUAN.**

**EGITATEAK.-**COVIDak sortutako egoerak, bereziki konplexua izanik laguntza-sarearen eremuan, Gizarte Ekintza Saila behartu du Foru Erakunde horri eskatzera sostengu eta aholkularitzako neurriak inplementa ditzala langile kualifikatuaren laguntzaz. Horren ondorioz, joan den ekainaren 16ko Ebazpen baten bidez xedatu zen Ángel Cuesta Lapido langileari esleitzea laguntza-sareko aholkularitza teknikoko eginkizunak, Birjinetxe laguntza-zentroko erizaintzako gainbegiralea den aldetik. Eginkizunok era diskrezionalean kendu ahal izango zitzaizkion arrazoitze labur baten bidez.

Bada, orain kontua da birusaren bigarren olatua deritzonaren eraginez promulgatu dela Lehendakariaren 17/2020 DEKRETUA, abuztuaren 15ekoa, zeinaren bidez bereganatzen baititu Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak, COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean. Egoera berri honi erantzuteko, laguntza-baliabide bat gaitu da, hau da, aholkularitza-talde bat, gehienez hogei profesionalz eratua, zeinak hornituko baititu IKP beharrianak (Infekzioa Kontrolatu eta Prebenitzea). Haren buru Andrés González Sánchez jauna arituko da, bera ere erizaintzako gainbegiralea. Laguntza-sarearen eremuan COVID infekzioa kontrolatu eta prebenitzeko lantalde horiek abuztuaren 21ean eta 31n jarri dira abian, hurrenez hurren, hasierako data hartako Ebazpenaren bertutez.

Egia da denbora honetan guztian Cuesta Lapido jaunak lantaldeok prestatzeko lanak egin izan dituela, era egokian inplementatu diren arte, baina dagoeneko desagertutzat jo behar da orduan haren aldeko izendapena eragin zuen kausa, eta, ondorioz, iraila amaitzearekin batera kenduko zaizkio halako eginkizunen betebeharra.

**KONTUAN HARTZEKOAK.-** GUFEn gerente andreari dagokio gai honen gainean erabakitze eskumena, hala ezartzen baitu 9. artikuluan maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauak, Erakunde horren Estatutuak aldatzeari buruzkoak.

Azaldutako guztia dela bide, hona Erakundearen Gerentziak ematen duen

### **EBAZPENA**

**Lehenengoa.-** Birjinetxe laguntza-zentroko erizaintzako gainbegiralea den Ángel Cuesta Lapido jauna kentzea laguntza-sarearen eremuan COVIDaren inguruko aholkularitza emateko zereginetatik. Ondorioz, utzi egingo dio eginkizun horrekin lotutako arduraldi bereziko osagarria kobratzeari (% 15ekoa). Eginkizun-kentze honek iraila amaitzearekin batera izango ditu ondorioak.



**Bigarrena**.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

**Hirugarrena**.- Honen berri ematea Birjinetxe laguntza-zentroko zuzendaritzari eta Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko eta Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioko Zuzendaritzari.

**Laugarrena**.- Ebazpen hau zentral sindikalei jakinaraziko zaie, eta Erakundearen iragarki-oholean eta intranetean argitaratuko da. Bete bedi.

Bilbon, 2020ko urriaren 6an

GUFE-REN GERENTEA

Sin.: Nerea Urien Azpitarte